

IKUSMIRAN 13

Egoeraren azterketa

2023ko apirila

13

Ikusmiran 13 | 2023ko apirila

Egoeraren azterketa

Aurkibidea

SARRERA	5
ONDORIO NAGUSIAK.....	6
ONDORIO NAGUSIEN AZTERKETA.....	8
1) Ehun ekonomikoa ahultzeko joera mantentzen da, industria sektorearen gainbehera iraunkor eta zerbitzuetan oinarrituriko ekonomia handituz	8
2) Erabaki politikoek ez dute zuzentzen lan merkatuan dagoen arazo estrukturala	12
3) Euskal Herrian indarrean dauden politika fiskalak enpresen mozkinak babestea dute helburu	14
4) Euskal Herriko ekoizpen eta kontsumo ereduak eragin negatibo ugari eta eustezinak sortzen ditu.....	17
GLOSARIOA.....	19

SARRERA

13. Ikusmiran-eko eduki nagusian sartu aurretik, testuingurua ulertzen lagunduko diguten hainbat aipu kokatu ditugu.

BAT. Areagotzen ari diren arazo sozioekonomikoak ez dira gertaera isolatu baten ondorio. Eredu kapitalista mantendu eta kapitalak aberastasuna metatzen jarrai dezan, sistemaren berezko ezaugarriek sortzen dituzten krisiak dira bata bestearen atzetik kateatzen ari direnak. Arazo batek bestea ekartzen du (adib, lehengai edota piezen gabezia eta distribuzio kateen kolapsoa) edota gertaera zehatz batek lehendik zetorren arazoa azkartu egiten du (pandemiak zaintza krisia agerian utzi izana). Egoera honen aurrean, sistema bera ez da gai irtenbide justuak sortzeko, sistemaren beraren sendotasuna ez delako benetakoa.

BI. Beraz, krisi garai bat "gainditu" arren, egoera soziopolitiko eta ekonomikoa ez da lehengoratzen. Krisiek koordinada berriak instalatzen dituzte eta horien gainean eraikitzen da ordenamendu geopolitikoak. Azken hamarkadetan kateatu diren krisi guztiek sorturiko baldintzak dira egungo sistema sostengatzen dutenak, gure lan eta bizi baldintzatan eragiten dutenak.

HIRU. Egoera zaugarrian dauden herritarrak gero eta gehiago dira. Inolako heldulekurik gabe, egunerokoa desorekatu dezakeen arazo baten aurrean, euren bizi baldintza duinak kolokan jarri bizi diren herritarren kopurua gorantz doa. Bizitzaren garestitzeari aurre egiteko, bizi unitateek pandemian aurrezturikoa gastatu dute eta bankuetan zituzten aurrezkiak ateratzeari ekin diote. Nabarmendu behar dugu, diru sarrera baxuenak dituzten familiak direla, oinarritzko elikagai edota beharrezkoak bermatzeko, joera honi ekin diotenak. Egoera orokortuz gero, espekulazioan sostengatzen den eta etengabeko arrisku egoeran dagoen sistema finantzari kapitalista ahulean eragina izan dezake. Honi guztiari gehitu behar zaio EBZ-ak interes tasak igotzeak ere, finantza merkatuetako tentsioak handitu egin dituela.

LAU. Herritarren kezka areagotu egin dira oinarritzko bizi baldintzei dagokionean. Kapitalismoak kateatzen dituen krisien ondorioak herritarren bizitzetan duten eragina biderkatzen dute (oinarritzko elikagai zein erregaien garestitzea, erosahalmenean galera, hipoteken garestitzea, zerbitzu publikoen pribatizazioa...) eta herritarren kezken iturburuan daude oinarritzko eskubideen bermearekin loturiko esparruak (osasungintza, lan merkatua, arazo ekonomikoak, etxebizitza, zerbitzu publikoak...).

Honek aldaketa bat suposatzen du; izan ere, eskubide indibidualak kezka iturri nagusia izatetik, kolektiboak zaizkigun eskubideak kezka iturri nagusi izatera pasa dira, norbere bizitzaren egunerokoan duten gabezia agerian sentitzen baita. Izan ere, zerbitzu publikoen pribatizazioek, babes sozialean gertatzen ari diren murrizketek edota lan baldintzen okertzeak, bi mailako ondorioak ekarri dituzte: batetik, diru-sarrera baxuenak dituzten gero eta herritar gehiago egotea oinarritzko eskubideak bermatu gabe eta; bestetik, azken urteetan sistema pribatuaren bidez oinarritzko eskubideak kubritu dituzten herritarrak gero eta zailtasun edo ezintasun gehiago izatea bide hori mantentzeko.

Beraz, ez da kasualitatea parte hartze politikoa handitu izana, herritarrak kezka bizi baitugu bizi eta lan baldintzak okertzen dituen eredu (kapitalista) honen bilakaera.

Eskuartearen duzuen Ikusmiran azterlanean zehar, aipu hauek guztiak datuetara eramaten saiatuko gara, Hego Euskal Herriaren egoera sozioekonomikoaren ezaugarri nagusiak bilduz.

ONDORIO NAGUSIAK

1) Ehun ekonomikoa ahultzeko joera mantentzen da, industria sektorearen gainbehera iraunkor eta zerbitzuetan oinarrituriko ekonomia handituz.

HEH-ko ehun ekonomikoaren ahultze-joera mantentzen da. Izan ere, industriaren bilakaera negatiboa konstante bat da. Zerbitzuetan oinarrituriko ekonomia eredu da nagusi izateaz gain, eredu horretan sakondu eta egiturazkoa bilakatzeko hauta egina dagoela berresten digute aztergai izan ditugun adierazle zein joerek.

- Manufaktura industria deslokalizatzearen ondorioz 2021-2022 artean galdu ziren 12.700 lanpostuak errekuperatzetik urrun gaude.
- Afiliazioa gainbeheran dago industria sektorean (2009tik %11,30 jaitsi), zerbitzuetan goranzko joera iraunkorra den bitartean (%16,35ak egin du gora afiliazioak).
- BPG-a aztertuz gero, industriak BPG-ean duen pisua nabarmen igo bada ere (2019an BPG-aren %2,47ko hazkunde nominala izan zuen industria, 2022an %15,75ko hazkundera izatera pasa da), zerbitzu publikoetan inbertsiorik suposatzen ez duen aberastasuna da, energia enpresa handien irabaziak baitira sektoreak BPG-ean duen igoera ekarri dutenak, Ikusmiran honetan zehar ikusiko dugun bezala.
- Zerbitzu sektoreak BPG-ean duen pisua handituz doa (2008.urtean BPG-aren %54,89a izan bazen, 2022.urtean %60,19 izatera igaro da).

Zoritxarrez, ez dago honi aurre egiten ari zaion inolako politika publikorik Euskal Herrian. Instituzio nagusien aldetik (estatueta gobernuak, administrazio autonomikoak, diputazioek...) ehun industrialaren desegitearen aurrean arduragabe jokatzeko dute eta zerbitzu ekonomiaren aldeko apustu ekonomiko zein politikoa egiten dute.

Egoera honek dituen baldintzapen zein ezaugarriekin, errealitate sozioekonomikoan honako bi ondorio nagusi atzeman ditugu:

1) herritar guztion bizi baldintzak kolokan jartzea eta 2) baldintza zaurgarriak dituzten kolektiboetan inpaktua bortitzagoa da.

6

2) Erabaki politikoez ez dute zuzentzen lan merkatuan dagoen arazo estrukturalak

Orokorrean, planteatzen ari diren neurri ekonomikoez ez dituzte zuzendu kontratazio edota lan merkatuko egiturazko arazoak. Espainiar estatuko lan erreforma, zehazki, ez da nahikoa izan kalitatezko enpleguaren sorrera bultzatzeko. Enpresariak (eta patronalak) legearen zirrikitu agerizkoak baliatu dituzte langileon prekarizazioa indartzeko.

- Behin behineko kontratuak gutxiago izan arren, kontratu mugagabeen artean aldizkako finkoen kontratazioa ia bikoizteak, prekaritate forma berriak ekarri ditu non ezegonkortasuna faktore nagusia den.
- Langabeziak goranzko norabidea hartu du, emakumeak, gazteak eta etorkinak izanik kaltetuenak.

3) Euskal Herrian indarrean dauden politika fiskalak enpresen mozkinak babestea dute helburu

Euskal Herrian dagoen politika fiskalak, zerbitzu publikoen murrizketarako kultura berri bat ezarri nahi izatea indartu dezake. Aberastasuna EB-ren gainera sortzen da, baina presio fiskalaren errealitatea eta, praktikan, sozietateen gaineko zergen inexistenziak ekartzen duena da ez dagoela aberastasun horren birbanaketarako politikarik eta enpresarien mozkinak babesten direla. Beraz, gutxi batzuek kapitala metatzen jarraitzen dute, kapital eta lan errenten arteko arrakala handituz. Beraz, egiturazko arazo baten aurrean gaude.

- BPG per capita aztertuz gero, HEH-an banatzekoa beharko lukeen aberastasuna egon badago. Beraz, alderaketa egiterakoan, esan genezake gure ingurune hurbilean baino aberastasun gehiago sortzen dela eta gure eremu geopolitikoaren batezbestekoaren gainera.
- Diru sarrera fiskalak nondik eskuratzen diren aztertzen badugu, enpresen irabaziak babesten dituen zerga politika ez dela progresiboa ikus daiteke: Europarekiko alderatuz, sozietateen gaineko zergatik eta PFEZ-tik biltzen den diru sarrera fiskalak baxuagoak dira HEH-an.

4) Euskal Herriko ekoizpen eta kontsumo ereduak eragin negatibo ugari eta eustezinak sortzen ditu

Garapen ereduaren paradigma berriak hazkunde ekonomikoa neurtzeaz gain, ingurumenari edota bizi kalitate nahiz ongizateari loturiko adierazleak kontutan hartu behar genituzkeela azpimarratzen du.

- Airearen kalitatea kaxkarragoa da enpresa handiak edota trafiko fluxuak kontzentratzen diren zonaldeetan.
- EAE eta NG-ko BEG isurketen inbentarioen arabera, isuri handiena duten sektoreak industria, energia eta garraioa dira. Azken 30 urteetako bilakaeraren arabera, BEG isurketek ez dute murrizketa esanguratsurik izan: EAE-n %0,81 murriztu dira eta Nafarroa Garaian %1,97
- Berotegi Eftukoko Gasen isurketa gehien sortzen dituzten sektoreetan (industria, garraioa eta energia) politika publiko eraginkorrak behar dira. industria eta energia eta garraioa dira.

ONDORIO NAGUSIEN AZTERKETA


Hego Euskal Herriko egoera sozioekonomikoari dagozkion ondorio politiko nagusiak jarraian aurkezten diren lau bloke nagusitan banatu ditugu.

1) Ehun ekonomikoa ahultzeko joera mantentzen da, industria sektorearen gainbehera iraunkor eta zerbitzuetan oinarrituriko ekonomia handituz.

HEH-ko ehun ekonomikoaren ahultze-joera mantentzen da. Izan ere, industriaren bilakaera negatiboa konstante bat da. Zerbitzuetan oinarrituriko ekonomia erdua nagusi izateaz gain, eredu horretan sakondu eta egiturazkoa bilakatzeko hautua egina dagoela berresten digute aztergai ditugun adierazle zein joerek.

- Manufaktura industria deslokalizatzearen ondorioz 2021-2022 artean galdu ziren 12.700 lanpostuak errekuperatzetik urrun gaude. SEPEren arabera, 2023ko otsailean 1818 langabe gutxiago zeuden industrian. Datu honek bere hortan ez du esan nahi industrian enplegua sortu denik, baizik eta industriako langileek lana lortu dutela (afiliazio datuen gainbehera ikusita, beste sektore batean ziurrenik) edota jubilatu direla.
- Afiliazioa gainbeheran dago industria sektorean (2009tik %11,30 jaitsiz), zerbitzuetan goranzko joera iraunkorra den bitartean (%16,35ak egin du gora afiliazioak).

AFILIAZIOA HEGO EHN (ZERBITZUAK-INDUSTRIA)




Iturria: espainiar estatuko Gizarte Segurantzza

- BPG-a aztertuz gero, industriak BPG-ean duen pisua nabarmen igo bada ere (2019an BPG-aren %2,47ko hazkunde nominala izan bazen, 2022an %15,75ko hazkunde izatera igaro da), baina igoera honek ez du zerbitzu publikoetan inbertsiorik ekarriko, energia enpresa handien irabaziak baitira sektoreak BPG-ean izan duen igoeraren arrazoia, Ikusmiran honetan zehar ikusiko dugun bezala.

- Zerbitzu sektoreak BPG-ean duen pisua handituz doa (2008.urtean BPG-aren %54,89a izan bazen, 2022.urtean %60,19 izatera igaro da).

SEKTOREEN PORTZENTAIA BPGEAN HEGO EHN (%, 2008-2021)



Iturria: Eustat eta Nastat


- Establezimenduen bilakaera aztertzen badugu, bi ondorio nagusi atzeman ditugu: bata, establezimendu handiak direla areagotzen ari diren bakarrak, txikien kalteetan; bestea, kapitalismoak sortzen dituen beharren arabera bilakaera dutela establezimenduek (azken urtean, higiezinaren jarduerari lotutako establezimenduen areagotzea azpimarratu behar dugu); eta, azkenik, EAE eta Nafarroa Garaia artean dauden desorekak, EAEn establezimendu kopurua beherantz doan bitartean, Nafarroako eskualde gehienetan gorantz doalako.

	2012-2015	%	2015-2020	%	2012-2022	%
Industria	-1733	-% 9,86	-1312	-%8,28	-3365	-%19,14
Eraikuntza	-4734	-%14,78	-1258	-%4,61	-5568	-%17,39
Komertzioa, garraioa eta ostalaritza	-2568	-%3,33	-5047	-%6,77	-9749	-%12,64
Informazioa eta komunikazioak	70	% 2,13	296	%8,80	553	%16,79
Finantza jarduerak eta aseguruak	77	% 2,14	-324	-%8,80	-89	-%2,47
Higiezinaren jarduerak	-1664	-%29,79	249	%6,35	84	%1,50
Jarduera profesional eta teknikoak	546	% 1,69	-102	-%0,31	606	%1,87
Hezkuntza, osasungintza eta zerbitzu sozialak	1519	% 11,44	1603	%10,83	3722	%28,02
Beste zerbitzu pertsonalak	-117	-%0,76	1647	%10,72	2138	%13,81
Zerbitzuak orotara	431	%0,59	3369	%4,55	7014	%9,53
OROTARA	-8604	-%4,30	-4248	-%2,22	-11668	-%5,82

Instituzio nagusien aldetik (estatu eta gobernuak, administrazio autonomikoak, diputazioak...) ehun industrialaren desegitearen aurrean arduragabe jokatzen dute eta zerbitzu sektorearen aldeko apustu ekonomiko zein politikoa egiten dute.

Hazkunde ekonomikoari buruz Gobernuak egiten dituzten aurreikuspenetan arreta jartzen badugu, BPG-aren hazkunde tasa txikiagoa izango dela espero da. Urtarrilean, Eusko Jaurlaritzak (%2,1) eta Nafarroako Gobernuak (%1,4) egindako aurreikuspenen arabera, 2023an BPG HEHan %1,94koa izango da (2,36 puntuko jaitsiera aurreko aurreikuspenarekiko). Europar Batasunerako egiten diren aurreikuspenak egoera kaxkarrago baten aurrean egon gaitzkeela diote, BPG %0,7ean kokatuz. Munduko BPGren hazkunde nominala, aldiz, %2,70-koa izatea aurreikusten da 2023an. 2024ko aurreikuspenak goranzko norabidean kokatzen badira ere, joera aldaketa ezin da baztertu.

BPG: URTE ARTEKO BILAKAERA




Iturria: Eustat, Nastat, Eurostat, Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtza (NDF)

- Kontziente izan behar dugu, egiten diren aurreikuspen ekonomiko guztiak, errealitatea baino optimistagoak direla beti, eta hilabeteak aurrera joan ahala, beharrezko berrikuspenak egin ohi direla. Aurreikuspen ekonomikoen atzean mezu politikoa dago eta 2022. urteko esperientzia parametro horietan kokatu behar dugu (aurreikuspenen beharrezko berrikuspen etengabea, krisiaren gordintasuna erabatekoa izan arte, eguneratzen ez zirenak).
- Bada, Ikusmiran ixten ari ginela, arestian aipaturikoa berretsiz, Eusko Jaurlaritzak martxoan EAE-rako egindako hazkunde ekonomikorako aurreikuspenak berrikusi eta jaitsi dituela %1,5ean kokatuz (urtarrilean baino 0,6 puntu behera eginez).

Aurreikuspenak datu ekonomikoen gainean egin arren, argi gelditzen da ekonomiaren erabateko kontrolik ez dagoela gobernuen aldetik eta krisiek ezarritako baldintzak lehengoratzetik urrun, ordenamenduaren logikan instalatu dira.

Egoera honek dituen baldintzapen zein ezaugarriekin, errealitate sozioekonomikoan honako bi ondorio nagusi atzeman ditugu:


1. Herriar guztion kalitatezko bizi baldintzak kolokan jartzen dituzten joerak (oinarriko produktuen garestitzea, erosahalmenean galera, etxebizitza, prezioen igoera...), denboran luzatzen ari dira.
- Honek guztiak bizi unitateen kontsumoan izaten ari den eragina nabarmena da, kontsumoaren izaeran aldaketa sumatzen hasi da. 2008ko krisi ekonomikoaren ondoren, 2010.urtean bizi unitateen kontsumoko gastuak goranzko joera hartu zuen eta 2019. urtean azken 12 urteetako baliorik altuenera iristeaz gain, 2018.urtean BPG-aren %61,4 tasara heldu zen. Pandemiak eta honen testuinguruan harturiko neurriek bizi unitateen kontsumoko gastua nabarmen jaitsi zuten (BPG jaistearren arrazoietakoa bat haxe bera izan zen, besteak beste). Osasun larrialdia pasata, ordea, bizi-unitateen kontsumo gastua behera egiten jarraitzen du, BPG-ean duen pisua %58,74ra jaitsiz (2018.urtean baino 3 puntu gutxiago). Beraz, 2021.urtean hasi zen KPI-aren gorakadak eta ondoriozko prezioen garestitzeak, eragin nabarmena izan du bizi-unitateen kontsumoan, diru-sarrera antzekoekin kontsumorako gaitasuna jaitsi baita.



2. Inpaktu horiek guztiek, baldintza zaugarriak dituzten kolektiboetan eragin bortitzagoa dute, gero eta herritar gehiago baitaude egoera konplexuetan, inolako heldulekurik gabe. Hau da, egunean egunekoa bizitzen, euren bizitza sostengatzen duen hariren bat apurtuz gero, pobrezia edota bazterketa arriskuan.

- FOESSA informearen arabera, arazo gehien dituen biztanleriaren proportzioak izan du igoyerarik handiena, 2018an biztanleriaren %1,3a izatetik, 2021ean %6,1a izatera pasa dena (28.000 pertsona izatetik, 134.000 pertsona baino gehiago izatera). Beraz, 2018ko "errekuperazio aldia", prekarietate bitalaren gainean eraikia izan dela argi uzten dute datuok.


EAEKO BIZTANLERIAREN BANAKETAREN BILAKAERA (%), JENDARTE-BAZTERKETAREN INDIZE SINTETIKOAREN ARABERA (2018 - 2021)



Iturria: FOESSA Informea, 2022

Amaitzeko, estatu espainiarretik kanpo etorritako biztanleriaren bilakaeran jarri nahi dugu arreta; izan ere, erabateko korrelazioa dago migrazio fluxu eta hazkunde ekonomiko zikloen artean. Hazkunde ekonomiko garaietan estatutik kanpoko biztanleria hazi egin den bitartean, krisi garaietan, mantendu egin da, Hego Euskal Herria bizitoki bilakatuta. Generoaren arabera batetik, nabarmena da azken urteetan migratu duten emakumeen kopuruaren igoera.

ESTATU ESPANIARRETIK KANPO JAIOTAKOAK (HEGO EH)




12

2) Erabaki politikoek ez dute zuzentzen lan merkatuan dagoen arazo estrukturala

Orokorrean, planteatzen ari diren neurri ekonomikoek ez dituzte zuzendu kontratazio edota lan merkatuko egiturazko arazoak. Espainiar estatuko lan erreforma, zehazki, ez da nahikoa izan kalitatezko enpleguaren sorrera bultzatzeko. Enpresariak (eta patronalak) legearen zirikitu agerizkoak baliatu dituzte langileen prekarizazioa indartzeko.


- Kontratu mugagabeen kopuruak gora egiten jarraitzen du, 2023ko otsailean zeuden kontratu guztien media hartuta, %73,6a mugagabeak zirelarik.
- Kontratazioan eman den aldaketa kalitatezkoa izatea kolokan jartzen du aldizkako finioen gorakada nabariak. Izan ere, 2019tik bikoiztu egin da sinatu diren kontratu mugagabe guztietatik aldizkako finioen proportzioa (2023ko otsailean kontratu mugagabeen %5,01a aldizkako finokoak ziren, 2019an, aldiz, %2,54a).

AFILIAZIO-EHUNEKOA, KONTRATU MOTAREN ARABERA



Iturria: Espainiako Estatuko Gizarte Segurantzza
 **Datu hauek Erregimen Orokorrean afiliaturiko langileenak dira (nekazaritza eta etxeko langileen erregimen bereziak ez ditugu barneratu)


ALDIZKAKO FINKOEN PROPORTZIOA KONTRATU MUGAGABE GUZTIEKIKO. Hego EH (%)



Iturria: Espainiako Estatuko Gizarte Segurantzza

- Langabezia tasak gora egin du HEHan eta %8,9koa da (EParen 2022ko azken hiruhilabeteko datuak). Azpimarratu behar dugu, generoen arabera, emakumeen langabeziak goranzko joerari eusten diola %9,3ko langabezia tasarekin (gizonezkoena jaitsi den bitartean, %8,1ean). Era berean, langile migratuen langabezi tasa handia nabarmendu behar dugu, tasa orokorraren ia hirukoitza delarik (%26,4 EAEn eta %26,9 Nafarroan). Azkenik, 25urtetik beherako %20,9ko langabezia tasan alarma gorria piztu behar dugu.

LANGABEZIAREN BILAKAERA HEGO EHN (%)




Iturria: Eustat, Nastat eta Eurostat

3) Euskal Herriaren indarrean dauden politika fiskalak enpresen mozkinak babestea dute helburu

Euskal Herriaren dagoen politika fiskalak, zerbitzu publikoen murrizketarako kultura berri bat ezarri nahi izatea indartu dezake. Aberastasuna EB-ren gainera sortzen da, baina presio fiskalaren errealitatea eta, praktikan, sozietateen gaineko zergen inexistenziak ekartzen duena da ez dagoela aberastasun horren birbanaketarako politikarik eta enpresariaren mozkinak babesten direla. Beraz, egiturazko arazo baten aurrean gaude, gutxi batzuek kapitala metatzen jarraitzen dutelako, kapital eta lan errenten arteko arrakala handituz.


- BPB per capita aztertuz gero, HEH-an banatzekoa beharko lukeen aberastasuna egon badago. Beraz, alderaketa egiterakoan, esan genezake gure ingurune hurbilean baino aberastasun gehiago sortzen dela eta gure eremu geopolitikoaren batezbestekoaren gainera.

BPG BIZTANLEKO EUROPLAN. BILAKAERA (€/URTEAN)



Iturria: Eustat, Nastat eta Eurostat

BPG BIZTANLEKO URTEAN (2021. €/URTEAN)




Iturria: Eustat, Nastat eta Eurostat

- Diru sarrera fiskalak nondik eskuratzen diren aztertzen badugu, enpresen irabaziak babesten dituen zerga politika ez dela progresiboa ikus daiteke:

- 2021ean 30.230,9 milioi euro bildu ziren guztira Hego Euskal Herrian zerga eta gizarte-kotizazioengatik; hau da, aurreko urtean baino % 1,8 gehiago. Hala ere, BPG-ren arabera tasak behera egin du, %30,2ean kokatuz. Europar Batasuneko (EB) presio fiskalak gora egin zuen 2021ean, aurreko urtearekin alderatuta, %40,2tik %40,6ra igaroz. Gauzak horrela, deigarria da EAeko eta Nafarroako Foru Erkidegoetako presio fiskala jaitsi izana: EAEn %32,7tik %30,6ra eta NG-an %30,9tik %28,8ra jaitsiz.


PRESIO FISKALA EUROPAN (2021 URTEA)



Iturria: Geuk egina Eurostat, Eustat, Nastat
eta Espainiako Estaturiko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren datuekin (EEGSDN)


- Enpresen irabaziengatik dagoen presio fiskala Hego E.H.an %1,2koa da, EBko batz bestekoa %2,9 den bitartean.
- PFEZ-ren bilakaera aztertzen badugu, hau da, norberak duen errentaren arabera, proportzionalki ordaintzen den zerga kopurua, Europarekiko aldea handia dela ohartuko gara (2021ean HEHkoa %7,3koa izan zen eta EB27-koa %9,8a)
- Soldatak, ordea, BPG-ean pisua galtzen jarraitzen dute. Lehenik eta behin 2020. urtean soldatek BPG-ean izan zuten pisuaren gorakada pandemiak sorturiko ez-ohiko egoeraren ondorio izan zela gogoratu behar dugu (hainbat sektoreen ia erabateko geldialdiaren ondorioz, BPG-aren osaketan soldatek pisua irabazi zutelako). 2021. urteko emaitzak 2019ko tasa hobetzen badu ere, beheranzko norantza hartu du. Zentzu honetan, datuen eguneraketak joeraren norabidea mantentzen den edo ez esango digu. Azken hamabi urteetan, soldatapeko langileen ordainsariak BPGean duten pisua galdu dute, 2010 urtean %49a zelarik eta 2021ean %46,8a. Kapital eta lan errenten arteko arrakalak handitzen ari dira.

SOLDATEN PISUA BPGEAN. BILAKAERA (%)



- Soldatek ez dute KPI-aren arabera igoera proportzionalik izan. 2020 eta 2021. urteetan soldata igoera aurreko urteko KPIa baino altuagoa izan zen laneko borroka eta gatazken ondorioz. Azken bi urteetako KPI-a oso altua izan arren, soldaten igoera aurreko urteetako KPI-aren azpitik adostu dira langileentzat.

SOLDATA IGOERA ETA KPI-A. HEGO EHN(%)





- Soldata igoerak ez dira langile guztientzat izan. Izan ere, erregimen orokorrean dauden langileen %31,61k soilik izan zuen soldata igoera 2020an, 2021ean %27,10k, 2022ean %22,15 eta 2023ean %16,42k (2023ko datuak martxora arte sinaturiko hitzarmenak kontutan hartuta dira). Beraz, langileriaren zati handienak ez du inolako soldata igoerarik izan azken 4 urteetan.
- Hitzarmenen babesik gabe dago langileriaren kopuru esanguratsu bat. LHKren arabera, EAEn 2021ean 57.000 langile inguruk ez ditu arautu lan hitzarmenen bidez lan baldintzak (soldatapeko langileen %9,5 inguru).
- HEH-an 198.800 dira etxeko lan ez ordaindura eskusiboki dedikatzen diren langileak (INEn arabera, 2022an). Gehienak emakumeak dira, inolako aitortza ekonomiko edota sozialik gabe.

4) Euskal Herriko ekoizpen eta kontsumo ereduak eragin negatibo ugari eta eustezinak sortzen ditu

Garapen ereduaren paradigma berriak hazkunde ekonomikoa neurtzeaz gain, ingurumenari edota bizi kalitate nahiz ongizateari loturiko adierazleak kontutan hartu behar genituzkeela azpimarratzen du.

- HEH-ko Berotegi Eftukoko Gas (BEG) isurketen gehiengoak enpresa handiek eta garraioak sortzen dituzte.
- EAE-n eta Nafarroa Garaian egindako BEG isurketen inbentarioek metodo ezberdinak erabiltzen dituzte eta horrek konparazioak egitea zailtzen du. Hala eta guztiz ere, antzekotasun nabarmenak daude, BEG isurketa gehien egiten dituzten sektoreak berdinak direlako eta egitura zertxobait aldatu bada ere, guztizko emisioak ez dira murriztu azken 30 urteetan (Nafarroan %1,97 jaitsi dira isurketa gehien eragiten dituzten sektoreen emaria, EAE-n aldiz, %0,81).




- BEG guztizko isurketen ratioa beste herrialde batzuekin alderaketa egiteko neurri bat da. Herrialde bakoitzak BEG isurketen inbentarioa egiteko metodologia ezberdinak erabiltzen dituela jakinik, neurria besteekin homologarria izatea du helburu. Horretarako, lurralde bateko BEG guztizko isurketak neurtu eta biztanleen arabera zatitzen da.

- 2005.urtean, BEG isurketek goia jo zutenean, eta 2019 urtean BEG isurketen ratioa (CO₂/ biztanleko) balio oso antzekoetan zegoen: 2019an ratioa mundu mailan 4,5 puntutan zegoen bitartean, EHan 8,8raino iristen zen, isurketak bikoiztuz. Beraz, azken 14 urteetan BEG isurketen murrizketa esanguratsurik ez da egon.

- Jarraian dagoen taulan, Europar Batasuna zein munduko hainbat herrialdek izan duten bilakaera, BEG isurketei dagokionean, azaltzen da. Kasu honetan, EAE eta Nafarroa Garaia kokatu ditugu 2020ko datuak alderatzeko. Modu honetan, EAEn 1990. urtetik guztizko BEG isurketak %35,47 murriztu diren bitartean, Nafarroa Garaiak %17,79 handitu ditu. Munduari so, Estatu Batuak eta Japonia dira isurketa gutxien murriztu dituztenak (%9,67 eta %10,19, hurrenez hurren), BEG isurketa gehienak eurek sorturikoak izan arren.

BEROTEGI EFETUKO GASEN GUTZIZKO ISURKETEN RATIOA (CO2/ BIZTANLEKO. 1990-2020)



Beraz, larrialdi klimatikoaren alarma guztiak piztuta, BEG isurketen murrizketa ahalbideratzeko politika publikoak garatzea lehentasuna da.

GLOSARIOA

BAI: Biztanleria Aktiboaren Inkesta

BEG: Berotegi Efektuko Gasak

BEZ: Balore Erantsiaren gaineko Zerga

BPG: Barne Produktu Gordina

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

EB: Europar Batasuna

EBZ: Europako Banku Zentrala

EEl: Espainiar estatistika institutua

EEZP: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

EGSDN: Espainiar estatuko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia

EH: Euskal Herria

EUROSTAT: Instituto de Estadística de la Comunidad Europea

EUSTAT: Euskal Estatistika Erakundea

GBIS: Gizarte Bazterkeriaren Indize Sintetikoa

HEH: Hego Euskal Herria

KPI: Kontsumo Prezioen Indizea

NASTAT: Nafarroako Estatistika Institutua

NG: Nafarroa Garaia

PFEZ: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

